



Andoni Kortajarena



SASKI NASKI

Geltokietako gertakariak

Bein batean, erri txiki bateko bi gazte soldauzkarako garaia iritxi zitzaien (bi urteko morrontza) eta Uri-buruan kokatua zegoen koartelera aurkezteko agindua artu zuten. Eguna iritxi zanean, beste bi adiskidekin batera, bazkari berezi bat egin zuten, agur-bazkaria, eta bapo jarri ziran jan eta edanez.

Bazkalondoan, patxara ederrean urbildu ziran alboko erriko tren-geltokira, baiña ain zuzen berak artu bear zuten trena, eurak iritxi baiño bost minutu leenago alde egin zuan.

Estazioko arduradunak jakin erazi zien berak joan bear zuten tokira zijoan urrengo trena andik ordu t'erdira iritxiko zala, eta bitartean, denbora pasa, egon zitezkeela alboan zegoan kantinan, eta lasai egoteko, berak dei egingo ziela trena irixten zanean.

Gure gazteak, naiz premiari ez izan, kantinara sartu ziran eta jokoan asi ziran denbora errexago pasatzeko.

Bitartean zama-tren bat iritxi zan eta bagoi batzuk bertan utzi bear zitulako, an zebillen atzera eta aurrera txistua joaz eta zalaparta sortuz arduradunen agindupean.

Eta ortan gazteak jan bear zuten trena ere iritxi zan. Gazteak, jokoan murgildurik, ez ziran oartu zama-trenaren txistuak izango ziralakoan, eta, jefeari ere aaztu egin zitzaion agindutakoa eta trena abiatzeko txistua jo zuanean, orduntxe gogoratu zan gazteetaz eta korrika bizian joan zan aiek zeuden lekuraiño garrasika. Gazteak konturaturik trena bazijoala, dana bertan utzi eta korrika, lau mutillak, an joan ziran treneruntz eta lenengo biak, larri-larri lortu zuten ba-



goiaren estribora igotzea (garai aietan bidari-bagoiak aurrean eta atzekaldean balkoi tankerako zerbait izaten zuten eta bertara igotzeko eskaillerak) eta beste biak andenean geratu ziran, zu-zutik bata besteari begira, zer esan ez zekitelarik.

Alako batean, batak besteari lepotik elduta, biak batera, ja, ja, ja, algaraka asi ziran eta ezin ziran bere onera etorri. Jefeak inguratu zitzairen eta ea zer gertatzen zan galde egin zion eta era ontan erantzun zion gazte aietako batek.

«Zer esatea nai duzu? Gu lasai geunden zure deiaren zai eta ain larri iritxi zeranean, eriosuarrean, zer egiten genuan ez genekiela, dana bertan utzi ta laisterka abiatu gera, eta, treneratu diran biak gu agurtzera etorritakoak ziran, gu bai gera trenean joan bear genuenak.

Beste gertaldi au ere geltoki batean gertatu omen zan.

Beti mendi aldean bizi izan zan gazte bat soldauzkarako deia artu zuelarik kuartelera joan bearrean gertatu zan eta trenez joan bear zuan. Etxetik irteterakoan bere amak aolku batzuk eman omen zizkion, nola ibilli bear zuan eta abar. Alegia, geltokira irixten zanean tren-txartela artu eta trena irixten zanean, jefeak deia egitean, trenera igotzeko.

Esan bezala egin omen zuan eta trena iritxi zanean arduradunak kanpanatik zintzilik zegoan katea astinduz. «Bidari jaunak trenera» dei egin, eta, zai zeude-

nak trenera igo omen ziran, baiña gure gaztea zu-zutik andenean geratu omen zan, bakar bakarrik.

Trenak alde egin zuanean jefeak inguratu eta zergatik ez zan treneratu galde-tu zionen, era ontan erantzun zion: «Agindu ez didazulako», zuk bidariei dei egin diezu, baiña ni artzaina naiz».

Egon zaite lasai eta urrengo trena etortzen danean zuri ere dei egingo dizut eta trenera igo, esan zion arduradunak.

Iritxi zan urrengo trena eta leen bezala, arduradunak kanpana astinduz era ontan egin zuan deia: «Bidari jaunak trenera, artzainak lenengo bagoira» eta gure mutilla, ori entzuan zunean, arro-arro trenera igo omen zan.

